

Migrazio kolonbiarra Euskadin: Nahitakoa edo behartua?

Kredituak

Migrazio behartuen karakterizazioa ikertzeko eta haren eragina aztertzeko lan baten zatia da dokumentu hau. Raquel Celis-ek koordinatu du lana (CEAR-Euskadiko Gizarte Eragin eta Parte Hartzerako Taldea).

Ikuspegi-ko José A. Oleaga, Iraide Fernández, Maite Fouassier eta Julia Shershneva adituek landu eta prestatu dute Laburpen Exekutibo honi oinarria eman dion Txostena.

www.cear-euskadi.org helbidean deskarga daiteke dokumentua osorik.

Finantzazioa:




**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

CEAR-Euskadi
Kristo kalea, 9B – 5 48007 Bilbo
t 94 4248844 / f 94 4245938
ceareuskadi@cear.es
www.cear-euskadi.org

Diseño y maquetación: Erreka Multimedia S. Coop.
Impresión: ABZ
Traducción: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.



Agerkari hau Creative Commons lizentziarekin dago
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es_ES

Migrazio kolonbiarra Euskadin: Nahitakoa edo behartua?


1. Sarrera

Gizarte gertakari zaharrenetako bat ditugu, inondik ere, nazioarteko migrazioak, eta garrantzi berezia hartzen ari dira berriro ere globalizazio garai berri honetan. Pertsonak lurraldeetan barrena egiten dituzte joan-etorriak ikerketa soziologikoaren topikoetako bat izan dira eta dira, handia baita bereizgarritzat duten konplexutasuna. Halatan, konplexutasun horretan sakondu nahi izan dugu lan honetan ere, migrazio molde desberdinak bereizi eta ezaugarritu nahian, kontuan harturik betiere migratzeko harturiko erabakia nahita edo behaturik hartu den.

Behaturiko lekualdatzea dugu pertsona bat, jazarpen baten jomuga delako, edo halakoa izateko zorian dagoelako, bere burua lurraldea uztera behaturik gertaturikoa. Giza eskubideen urratze larri edo sistematiko edo denboran luzaturiko baten ondorio gisa ulertu beharra

dago jazarpen hori, Estatuaren aldetik behar adinako babesik ez dagoenean. Bizilekua utzi eta sorterritik kanpora edo sorterriko beste lurralde batera aldatzen diren pertsona asko ez dira, a priori, barne lekualdatzeen eta errefuxiatuen araberako kategoria klasikoen barruan hartzeko modukoak, haien lekualdatzea behartua izan bada ere, eta horrexegatik ari gara CEAR-Euskadin behaturiko lekualdatzeen birkontzeptualizazio lanean.

Pertsona errefuxiatuen herri igorlea izan da Kolonia historian barrena, arrazoi politiko eta zibilengatik, eta arrazoi ekonomiko eta sozialengatik, erruz gertatu diren giza eskubide urratzeak direla medio. Hala eta guztiz ere, pertsona errefuxiatuen giza eskubideen alde diharduten erakundeek argiro hauteman dute nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen bolumen apalagoa dela azkenaldi honetan •



Iturria: Geuk egina

1. Lan honen prestakuntzari begira, nazioarteko erakundeek zabalkiro aintzat hartu dituztenez gainera, gogoan eduki ditugu era berean ingurumenaren arloko eskubideak eta sexu eta ugalketarako eskubideak.

(2. Helburua)

Lan honen helburua da Euskadin bizi diren pertsona kolonbiarren migrazio mugimenduetan beharturik gertatu diren lekualdatzeak identifikatzea, eragin dituzten kausak ere ahal neurrian zehatzuz. Horretarako, inkesta bana egin diegu Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko 401 pertsonari.

Helburu nagusira iritsi ahal izateko, bitarteko hainbat helburu hartu genituen aintzat. Hona hemen:

- Euskadin bizi den populazio kolonbiarraren migrazio prozesua deskribatzea.
- Gure lurraldean bizi den jatorri kolonbiarreko populazio horren jatorrizko ezaugarriak ezagutzea.
- Euskadin bizi den populazio kolonbiarraren migrazioan eragina eduki duten kausak eta faktoreak hautematea.
- Populazio kolonbiar horrek bere lurraldean zituen giza eskubideak aztertzea, bermatzen edo urratzen ziren zehatzeko; hau da, pertsona horien jatorrizko lurraldean eskubideak urratu diren hautematea eta hala gertatu bada egoera ezagutaraztea.
- Eskubideen balizko urratzeak deskribatzea, informazioa eskubide mota bakoitzaren arabera bereizirik: eskubide politikoak, eskubide zibilak, eskubide ekonomikoak, eskubide sozialak, ingurumen arloko eskubideak, eta sexu eta ugalketarako eskubideak.
- Eskubide urratze horien artean, halako intentsitate mailaketa zehaztea.
- Pertsona horiek beren lurraldean ustez pairatu zituzten eskubide urratzeen maiztasuna deskribatzea.
- Pertsona horiek beren lurraldean ustez pairatu zituzten eskubide urratzeen iraupena deskribatzea.
- Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko pertsonen migrazioa nahitakoa edo behartua izan den bereizi ahal izateko irizpidea zehaztea •

3. Metodologiaren diseinua

Erreferentziazko tipologiaren arabera identifikatu, zehaztu eta definitu dira Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko pertsonak migratzera bultzarazi zituzten egoerak, haien oinarrian sumatzen diren lekualdatze behartuen kasuak agerian utzirik (**landa-lana**):

- Galdeketa eredu baten prestaera, arestian azalduko helburuen arabera.
- Aurre-test bat prestatu eta bideratu zen, inkestaren eraginkortasuna Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko 50 pertsonen artean frogatzeko.
- Inkesta Euskadin bizi diren jatorri kolonbiarreko 401 pertsonari.
- Ondorioen ateratzea eta kontrastea.

Lekualdatze 'behartuak' identifikatzen

Eskubideen urratzeak hauteman, bereizi eta ongi finkatu behar genituen aurren-aurrenik, puntu hartatik abiatuz lekualdatzeak ongi ezaugarritu ahal izateko. Horrenbestez bereizi ahal izango genituen ondoren beharturik eta nahita eginiko migrazioak. Eskubide baten urratzearekin loturiko migrazioen kasuan, garbi geneukan ezin genuela beti eta besterik gabe lekualdatze behartu batez hitz egin.

Azterturiko eskubideak urratzearen ikuspegitik garrantzi maila bereberekoak izan litezkeen arren (eta berea hartuko luke eztabaida horrek ere), eskubideen urratze guztiek ez zituztela pertsonak modu berean mugiarazi iruditzen zitzaigun.

Halatan, 'agerikoen' eta 'egotzirikoen' arteko bereizkuntza egin dugu lekualdatze behartuak ezaugarritzerakoan:

▶ **AGERIKO lekualdatze behartua**

Halakotzat hartu dugu galdeturiko pertsonak lekualdatzea halakoa izan zela espresuki adierazi digutenean. Inkesta aurreratu xamar zegoela, jatorrizko lurraldean beraien eskubideak bermatuak ote ziren galdetu eta gero, egin zitzaien galdera hau.

▶ **EGOTZIRIKO lekualdatze behartua**

Halakotzat hartu dugu galdeturiko pertsonak halakoa izan zela espresuki adierazi ez diguten arren, ikerketa taldeak, jatorrizko lurraldeko eskubide urratzeak zirela medio, lekualdatzea behartutzat jo duenean. Lekualdatze bati 'behartu' izaera egotzi ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar ziren:

- Halako eskubidea urratu ote zen galdetu zaie-nean, inkestaturiko pertsonak argi eta garbi adierazi behar zuten urratu egin zela;

- Urratzearen maiztasunari buruzko galderaren aurrean, 'oso maiz' edo 'ia beti' gertatu zela erantzun behar zuten inkestatuek;
- Urratzearen iraupenari buruzko galderaren aurrean, 'luzaz' gertatu zela erantzun behar zuten inkestatuek;
- Urratze baten **INTENTSITATEARI** buruzko galdera baten aurrean:
 - **Estrategia 'nagusia'**: 0-tik (arina) 10-era (oso larria) bitarteko eskalan, erantzunak 8 puntutik gorakoa izan behar zuen politika, gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetako eskubideen kasuan, eta 9-tik gorakoa sexu eta ugalketaren arloetakoenean.

Sexu eta ugalketarako eskubideek pertsonak mugiarazteko beste arloetakoek baino urratze maila handiagoa behar dutela uste izateak itxi gabeko eztabaida baten aurrean ezartzen gaitu inolaz ere. Zer biolentzia mota den mugiarazleagoa, horra hor oraindik zabalik dirauen eztabaida garrantzitsua.

CEAR-Euskadi-ren ikuspegitik, sexu eta ugalketarako eskubideen urratzea beste edozein eskubide urratze bezain mugiarazlea izan li-

teke, baina egia da populazio mugimenduen gaineko analisisetan ez dela besteak bezain nabarmen agertzen.

Nolanahi ere, irizpide irekiak dira hauek, tresnak sortzerakoan identifikatu ditugu eta ez dugu, hasierako fasean, haietan sakontzeko aukerarik izan. Gure asmoa zen metodo berri bat eskaintzea, kopuruetan bereziki oinarrituriko metodoa, lan egiteko aukera emango zigun metodoa.

- **Estrategia 'arautu gabea' edo ASMOEN ESTIMAZIOAN**, oinarrituriko estrategia. Urraturiko eskubide bakoitza libreki ponderatzen da, kontuan edukirik eskubide zibil baten urratzeak, torturaturik ez izateko edo epaiketa justu baterako eskubidearen urratzeak, adibidez, larritasun maila txikiagoa eskatzen duela pertsonak mugiarazteko, lan baldintza justu eta bidezkoetarako eskubidearen urratzeak baino •

1. Taula: Egozirikoko lekualdatze behartua aintzat hartzeko estrategia nagusia

TALDEA	ESKUBIDEA	URRATZEA	INTENTSITA-TEA	MAIZTA-SUNA	DEN-BORA
Politikoak	Biltzeko eta elkartzeko askatasuna	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Botorako eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
Sozialak	Gizarte Segurantzarako eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Dohaineko hezkuntza unibertsalerako eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Erlijio heziketarako aukera	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Bizi maila duina	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Osasun zerbitzu duin baterako aukera	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
Zibilak	Bizitza, askatasun eta segurtasunerako eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Torturarik ez pairatzeko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Tratu anker, gizagabe eta degradagarriak ez pairatzeko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Epaiketa justurako eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Kriminalizazioa	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Atxiloketa edo preso sartze arbitrarioa	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Lurraldean libreki zirkulatzeko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Lurraldetik libreki ateratzeko eta hara itzultzeko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Jabetza pribatuaren galera edo galtzeko arriskua	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Iritzi eta adierazpen askatasuna	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
Ekonomikoak	Lan egiteko eta bizimodua duin ateratzeko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Lan baldintza onak eta bidezkoak	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Sindikatu bat sortzeko edo hartako kide egiteko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
Sexualak eta ugaletarakoak	Kontrazepziorako neurrietarako aukera eta informazioa	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
	Ugalketarako osasunaren babesa	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
	Sexu orientazioa libreki hautatzea eta gauzatzea	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
	Emakume izateagatik ez diskriminatua izateko eskubidea	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
TALDEA	ESKUBIDEA	URRATZEA	OZTOPOA		
Ingurumen eskubideak	Inguruko natura baldintzetarako aukera	Bai			
	Ingurumen krisietatik datozen egoerak	Bai	Bai		
	Bizitzaren garapena galarazten dituzten ingurumen hondamendiak	Bai			

2. Taula: Egozirikoko lekualdatze behartua aintzat hartzeko estrategia arautu gabea

TALDEA	ESKUBIDEA	URRATZEA	INTENTSITA-TEA	MAIZTA-SUNA	DEN-BORA
Politikoak	Biltzeko eta elkartzeko askatasuna	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Botorako eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
Sozialak	Gizarte Segurantzarako eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Dohaineko hezkuntza unibertsalerako eskubidea	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
	Erlijio heziketarako aukera	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
	Bizi maila duina	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Osasun zerbitzu duin baterako aukera	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
Zibilak	Bizitza, askatasun eta segurtasunerako eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Torturarik ez pairatzeko eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Tratu anker, gizagabe eta degradagarrikerik ez pairatzeko eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Epaiketa justurako eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Kriminalizazioa	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Atxiloketa edo preso sartze arbitrarioa	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Lurraldean libreki zirkulatzeko eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Lurraldetik libreki ateratzeko eta hara itzultzeko eskubidea	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Jabetza pribatuaren galera edo galtzeko arriskua	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Iritzi eta adierazpen askatasuna	Bai	Ert.-Hand. (>7)	Oso maiz	Luzea
	Ekonomikoak	Lan egiteko eta bizimodua duin ateratzeko eskubidea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz
Lan baldintza onak eta bidezkoak		Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
Sindikatu bat sortzeko edo hartako kide egiteko eskubidea		Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
Sexualak eta ugaletarakoak	Kontrazepziorako neurrietarako aukera eta informazioa	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
	Ugalketarako osasunaren babesa	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Sexu orientazioa libreki hautatzea eta gauzatzea	Bai	Handia (>8)	Oso maiz	Luzea
	Emakume izateagatik ez diskriminatua izateko eskubidea	Bai	Oso hand. (>9)	Oso maiz	Luzea
TALDEA	ESKUBIDEA	URRATZEA	OZTOPOA		
Ingurumen eskubideak	Inguruko natura baliabideetarako aukera	Bai			
	Ingurumen krisietatik datozen egoerak	Bai	Bai		
	Bizitzaren garapena galarazten dituzten ingurumen hondamendiak	Bai			

4. Laginaren egitura eta ezaugarriak

Laginaren egitura eta ezaugarriak dagokienez, pertsona horien jatorrizko lurralde, sexu, adin, egungo ikasketa maila, egungo lan egoera eta administrazio egoerari buruzko datu esanguratsuenak aurkeztu ditugu.

Laginaren erdia Bilbo Handian jaso da, laurdena Donostialdean eta % 15a Arabako Lautadan. Beste hiru eskualdetan jaso da gainerakoa, Euskadin bizi den populazio kolonbiarraren banaketa geografikoari egokiro erantzun ahal izateko.

Sexuari dagokionez, inkestaturiko 10 pertsonatatik 6 dira emakumeak eta 4 gizonak.

Adin taldeei dagokienez, 36 eta 45 urte bitarteko pertsonak osatzen dute multzo handiena (% 46), 20 eta 35 urte bitartekoen multzoa dator ondoren (% 32), eta 46 eta 65 urte bitartekoena azkenik (% 22). Egungo ikasketa mailari dagokionez, bigarren mailako ikasketa dagoeneko bururatuak dituztela adierazi dute inkestaturiko pertsona gehienek (% 56k). Garrantzitsua da, halaber, lanbide heziketa ikasketak eginak dituztenen kopurua (% 20). Azkenik, gutxienak dira prestakuntza maila polarizatuak ageri dituzten pertsona taldeak: % 12 baizik ez dira unibertsitate ikasketak dituztenak eta antzeko kopuruan ageri dira lehen mailako ikasketak baizik ez dituztenak. % 1ek baizik ez du adierazi irakurtzen eta idazten dakiela justu-justu.

Azterturiko lagineko pertsonen lan egoerari dagokionez, lanean ari dira gehienak (% 71), % 4k kontraturik gabe, prekarietate hutsean, diharduten arren. Garrantzitsua da, era berean, langabezian dauden pertsonen kopurua (% 25). Ikaslea da haien % 1 eta etxeko lanetan dihardute % 3k.

Azkenik, haien administrazio egoerari dagokionez, herritartasun espainiarra dute lagina osatu duten pertsona gehienek (% 65ek), eta garrantzitsua da, halaber, bizileku iraunkorrerako baimena duten pertsonen kopurua (% 21).


Emakumeen eta gizonen artean gerta litezkeen babilizko aldeei dagokienez, jatorrizko lan egoerarekin (emakume langabe gehiago gizon langabe baino: % 19,1 emakumeen artean, eta % 3 gizonen artean), jatorrizko lan motarekin (etxeko lanetan ziharduten emakumeen % 11,4k eta gizon bakar batek ere ez) eta egungo lan egoerarekin (emakume gehiago ziharduten etxeko lanetan, haien arteko % 4,7k, eta gizon bakar batek ere ez) lotuak dira estatistika aldetik ageri diren alde esanguratsuenak •

Emaitza nagusien azterketa

A. IMMIGRAZIO KOLONBIARRA EUSKADIN: JATORRIKO EGOERA


Jatorriko bizilekuarekin loturiko galdera batzuk egin zaizkie inkestaturiko pertsonari, haien lanari buruz, bitzita hautemateko zuten moduei buruz, migratzeko arrazoiei, eta abarrei buruz. Ezagutu nahi izan dugu orobat haien konpromiso politikoa, Kolonbian zuten ekinbide politikoa, eta galdetu ere egin zaie lurraldean berean lekuz aldatzeko beharturik egon ote ziren, errefuxiatuen irudia ezagutzen ote zuten.

1. mapa: Inkestaturiko pertsonen jatorri nagusiak



Mapan aurkeztu diren 7 lekuetan bizi ziren inkestaturiko pertsonen % 73. Cali (% 27,2), Pereira (% 11) eta Medellín (% 11) ziren horien jatorri-hiri nagusiak. Inkestaturiko pertsonen % 64,4, 20 eta 34 urte bitartekoak ziren Kolonbia utzi zutenean. Inkestaturiko pertsonak positiboki baloratzen dituzte beren jatorriko bizilekuak, haien %66,6ren iritziz leku lasaiak, bizitzeko onak, baitira. Hala eta guztiz ere, % 18,7k leku arriskutsuan bizi zirela uste dute, %11,7k eremu gatazkatsutat dute beren jatorriko bizilekua, eta hondamendi natural batek suntsituriko edo garapenerako proiektu handi batek ingurumenean eragin handia eduki duen lurralde batetik etorriak direla adierazi dute % 2,9k.


1. grafikoa: Jatorrizko bizilekuaren definizioa



Iturria: Geuk egina

Oro har, **ongi bizi zela eta libre senti zela** dio inkestaturiko populazio kolonbiarrak (% 88,5ek), nahiz laurden batek ez duen Kolonbiako bizimodua halako erosotasunez betea ikusten, onartu egin baitute beldurrez bizi zirela (% 9,7k), nahi zutena ezin egin zutela (% 8k) eta, areago, bizirik irauteko izugarritzko zailtasunak zituztela (% 5,5ek).

2. grafikoa: Bizimodua jatorriko bizilekuan




Iturria: Geuk egina

Inkestaturiko pertsona kolonbiar gehienak, hamar lagunen zazpi zehazkiago, lanean ari ziren etxetik kanporako migrazio prozesuari ekin aurretik. % 10 ikasleak ziren eta % 5,7 baizik ez ziren momentu hartan lan bila zebiltzanak. Gainera, inkestaturiko pertsonen % 60k premiarik gabe edo ongi bizi zirela diote, eta % 36,9k adierazi zuten, ordea, premia egoeran bizi izanak zirela nolabait. Goseak bizi izan zirela adierazi dute argi eta garbi % 3,2k.

Migratorako arrazoiak lan, familia eta ekonomiaren arlo eta esparruetakoak dira nagusiki. Halatan, inkestaturiko pertsonen % 39,6k adierazi dute migratorako lehen arrazoiak izan zela lan baten edo lan hobea baten bilaketa, eta arrazoi honen ondotik datoz familia inguruko justifikazioak (% 25,2). Banatuago ageri da azalduko bigarren arrazoiak: Kolonbiako aukera ekonomikorik eza (% 10,7), lanbide edo profesio garapen hobea baterako asmoa (% 9,7) eta beste leku eta jende mota batzuk ezagutzeko asmoa (% 9,5).

3. grafikoa: Migratorako arrazoiak




Iturria: Geuk egina

Herritik kanporako migrazioa baino lehen barne mugimendurik izan ote zen jakin ahal izateko, bizilekuaz aurrez ere aldatuak ziren galdetu zaie. % 11,5ek adierazi dute Euskadira baino lehen beste leku batera mugituak zirela.

Barne lekualdatzeak Kolonbian

Inkestaturiko pertsona gehienek (% 84k) esan dute Kolonbia barruan bizilekuz aldaturiko inor ez zutela ezagutzen. Kasuren bat ezagutzen zutela adierazi zutenen artean, % 7,7k senitarteko baten edo batzuen kasua aipatu digute, % 6k adierazi dute eurek berek eduki zutela bizilekuaz aldatu beharra Kolonbia barruan, eta % 3,7k pertsona ezagun baten edo batzuen kasuak ezagutzen zituztela esan dute.

4. grafikoa: Jatorrizko lekuan beharturiko lekualdatze kasuen ezagutza




Iturria: Geuk egina

Pertsona errefuxiatuak

10 lagunetatik 6k ezagutzen dute babeserako eskubidearen irudia, axaletik bada ere. Horrek esan nahi du 10 lagunetatik 4k ez dutela ezagutzen, eta guztiz esanguratsua da hori mundu osoan beharturiko lekualdatze maila handienetakoa duen herri batetik datozela kontuan hartzen bada. Estatistikaren arloan, ez da alde esanguratsurik sumatu aldagai multzo desberdinak aintzat hartu eta gero.

5. grafikoa: Babeserako eskubidearen edo errefuxiatuaren irudiaren ezagutza




Babeserako eskubidea edo 'errefuxiatuaren' irudia ezagutzen dutela esan digutenei babesaren estatusa ote duten edo, ez duten arren, pertsona errefuxiatuak izan ote litezkeen galdetu diegu. Pertsona horien % 80,8k adierazi dute euren perfila tipologia horrekin bat ez datorrela, ustez behinik behin.

Pertsona horien % 1,7 errefuxiatu estatusaren jabeak dira, beste % 1,3k eskatu zuten (hau da, horretarako baldintzak betetzen dituztela uste dute), eta irudia ezagutzen dutela adierazi diguten pertsonen beste % 15,1ek sumatzen dute, euren ezaugarriak direla-eta, pertsona errefuxiatuak izan litezkeela.


Estatusa eskatzeko behar diren ezaugarriak biltzen dituztelakoan dauden arren, hala eskatu ez duten pertsonen galdetu genien ondoren zergatik jokatu zuten horrela. Prozesu guztia, betebeharrak eta tramiteak ez ezagutzea da arrazoi nagusia (% 39,4) eta Euskadin horrelakorik behar ez dutelako litzateke bigarren arrazoa (horretara eramaten gaituzte argudiaturiko beste arrazoen % 17,2k).

Beren burua errefuxiatutzat jotzen dituzten pertsonen artean, herritik irten baino lehen barne lekualdatzeren batera beharturik aurkitu zirela adierazi dute % 33,3k. Kopuru hori dezente handiagoa da herria beren bonordatez utzi zutela diotenena baino (% 4,3).

6. grafikoa: Errefuxiatuak izan litezkeen pertsonak



7. grafikoa: Errefuxiatu estatusa ez eskatzeko arrazoiak



MIGRAZIO PERFILA

Euskadin bizi diren pertsona kolonbiarren kasuan, badirudi, hasieran behinik behin, euren nahi izaniko migrazio baten protagonistak izan direla, bizi baldintzak hobetzeko edo antzeko arazoiek bultzatuak. Inkestaturiko pertsonen ehuneko esanguratsu bat Kolonbiako eskualde lasai xamarretatik etorriak dira. Espainiako estatuan, Euskadi ez da jatorri kolonbiarreko populazioaren babesleku nagusietako bat. Beste hiri batzuetan, handiagoa da estatu espainiarrean babesleku eskatu behar izan duten gizarte eta politika buruzagi kolonbiarren, gizon eta emakumeen, presentzia.

Inkestaturiko pertsonen ez zuten jatorrizko lurraldean politika edo gizarte konpromiso handiegirik (% 71,8), haietako % 11,4k beren burua konprometitzat badute ere.

B. ESKUBIDEAK JATORRIKO LURRALDEAN

1.- ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK JATORRIKO LURRALDEAN

3. Taula: Pertsonen eskubideak

Adierazpena	Familia	Eskubidea
EZP	ZIBILAK	<ul style="list-style-type: none"> · Bizitza, askatasuna eta segurtasuna · Esklabotzarik, torturarik edo tratu ankerrik ez · Auzitegi independente batek epaitua edo entzuna izatea · Arbitrarioki atxilotua edo preso hartua ez izatea · Lurraldean barrena libreki zirkulatzea eta bizitzea · Herritik atera eta bertara itzuli ahal izatea · Norberaren jabetza eta jabetza kolektiboa · Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna · Iritzi eta adierazpen askatasuna
	POLITIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> · Biltzeko eta elkartzeko askatasuna · Botorako eskubidea koakziorik gabe


Hona hemen, laburbildurik, eskubide zibil eta politikoetarako aukeren inguruko arazo nagusi eta garrantzitsuetako batzuk.

- Inkestaturiko pertsonen % 17,5ek jasan du **bi-zitza, askatasun eta segurtasunerako eskubidearen** urratzeren bat. Kopuru hau dezente altuagoa da Kolonbia uztera eta lekuz aldatzera behartuak izan zirela dioten pertsonen artean (pertsona horien % 70,8) eta bizi ziren lurraldea gatazka-leku gisa deskribatu zutenen artean (% 32,8k uste dute eskubide hori urratu zitzaiela jatorriko bizilekuan). Gainera, urratze hori bizi izan zutenen artean, urratze maila larria edo handia izan zela (6,9 puntu 0tik 10erako eskalan), oso maiz edo ia beti gertatzen zela (hala adierazi zuten % 46k) eta egora hark denboran luze jo zuela (hala sumatzen zuten % 47,6k) esan liteke.
- Esanguratsua da, halaber, **epaiketa justu baterako eskubidea** urratu zitzaiela adierazi duten pertsonen ehunekoa (% 18,7). Inkestaturikoen % 72,6k ez zuten eskubide hori urratu zitzaienik uste. Urratze hori bizi izan dutela adierazi duten pertsonen kopurua dezente handiagoa da, berriro ere, Kolonbia uztera eta lekuz aldatzera behartuak izan zirela dioten pertsonen artean.
- Garrantzitsua da, aldi berean, **herrian libreki zirkulatzeako eskubidea** urratzen zela adierazi duten pertsonen ehunekoa (% 13,5). Hala eta guztiz ere, % 86,5ek ez zuten arazo hori sumatu Kolonbian. Espero zitekeen bezala, kopuru hori

dezente handiagoa da Kolonbia uztera eta lekuz aldatzera behartuak izan zirela dioten pertsonen artean, eta bizi ziren lurraldea gatazka-leku gisa deskribatu zutenen artean.

- **Kriminalizatua ez izateko eskubideari** dagokionez, inkestaturiko pertsona gehienek adierazi dute Kolonbian ez zutela eskubide hori urratzen zen egoerarik ezagutu (% 86,5ek). Baina garrantzia du, aldi berean, % 13,5ek eskubide horren urratzea zuzenean pairatu behar izan zutela adierazi izanak.

8. grafikoa. Kriminalizatua ez izateko eskubidearen urratzea



Iturria: Geuk egina

Gainera, eskubide horren urratze maila larria edo handia izan zen, oso maiz edo ia beti gertatzen zen, eta egoera hark denboran luze jo zuen. Eskubide urratze hori zuzenean, beren buruan, pairatu zutela diotenen kopurua handiagoa da bizi ziren lurraldea gatazka-leku gisa deskribatu zutenen artean.

- Gehien-gehienek adierazi dute ez dutela **arbitrarioki atxilotua edo preso hartua ez izateko** eskubidearen urratzea bizi izan. Hala esan dute inkestaturiko pertsonen % 94k. Baietz adierazi dute % 5,7k.
- Inkestaturiko pertsonen % 97k adierazi dute, bestalde, ez dutela **torturaturik ez izateko eskubidearen** urratzea bizi izan. Halaz ere, pertsonen %3k azaldu dute biolentzia hori pairatu zutela. Ez da kopuru aldetik esanguratsua, bai ordea maila kualitatiboan oso larria.
- Inkestaturiko pertsona gehienek adierazi dute ez dutela **jabetza pribatua arbitrarioki edo bidegabeki ez galtzeko eskubidearen** urratzerik bizi (% 96,3k esan digute ez dutela euren jabetza pribatua –horrelakorik edukiz gero– modu arbitrarioan edo bidegabeki galdu eta ez direla galtzeko arriskuan egon). Baina % 3,7k aitortu dute Kolonbian eskubide urratze hori bizi izan zutela.
- Inkestaturiko pertsona guztien artetik, % 6,5ek (26 pertsonak) ez zuten nahi zutenarekin **biltze-ko eta elkartzeko askatasunik**. % 93,5ek (375 pertsonak) adierazi dute eskubide hori bermatua zutela. Aldagai batzuen eragina aztertu ondoren, berriro ere frogatu ahal izan dugu aldeak daudela, eskubide horren urratze maila neurtzerakoan, Kolonbiatik beharturik irten zirela azaldu duten pertsonen eta herria beren borondatez utzi zutela diotenen artean.
- Gehiengoaren joera dugu **boto askea eta koakziorik gabekoa**, % 95ek halakoa zela erantzun zutelako. **% 4k, ordea, botoa ematerakoan koakzioak jasan izana salatu dute**. Herria beharturik utzi zutela adierazi duten pertsonen % 16,7k koakziorik gabeko botoa bermaturik ez zegoela adierazi dute, eta horixe bera esan dute herritik beren borondatez aterata zirela adierazi dutenen % 3,8k.
- Iritzi eta adierazpen askatasunari dagokionez, inkestaturiko pertsona gehien-gehienek (% 93k) adierazi dute ez zirela eskubide hori urratzen zen egoeran bizi, baina % 7k esan dute kontrakoa.

2.- EKONOMIA, GIZARTE ETA INGURUMEN ESKUBIDEAK JATORRIKO LURRALDEAN

4. Taula: Pertsonen eskubideak

Adierazpena	Familia	Eskubidea
EGE + I	EKONOMIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> · Lan egin, bizimodua duin atera · Lan baldintza duinak eta bidezkoak · Sindikatua sortu eta hartako kide egin · Greba
	SOZIALAK	<ul style="list-style-type: none"> · Gizarte Segurantza · Familien babesa, amatasuna, haurrak eta nerabeak bereziki · Bizi maila egokia: elikadura, etxea, jantzia... · Osasun fisikoa eta mentala · Hezkuntza
	INGURUMENEOAK	<ul style="list-style-type: none"> · Natura baliabideetarako aukera (ura eta elikadura, bereziki)

- Pertsona gehienek (% 88,5ek) adierazi dute **lan egiteko eta bizimodua duin ateratzeko eskubidea** urratzen ez zen egoera batean bizi zirela. % 11k baizik ez dute eskubide hori urratu zitzaieela esan.

- % 24,2k adierazi dute **lan baldintza onak eta bidezkoak edukitzeko eskubidea** urratu zitzaieela (soldata, segurtasuna eta higieena, atsedena... eta abarrez ari gara). Inkestaturiko pertsonen % 74,1en aburuz, bizi zituzten lan baldintzak onak eta bidezkoak ziren. Eskubide honen urratzea bizi izan duten pertsonen kopurua dezente altuagoa da bizi ziren lurraldea gatazka-leku gisa deskribatu zutenen artean.

- Guztiz esanguratsua da, era berean, gizarte segurantzarako aukerarik ez zutela adierazi duten pertsonen ehunekoa (% 30,9k). Beraz, ez zitzaizkien duintasunerako oinarrizko eskubideak bermatzen, hala nola diru laguntzak, pentsioak edo langabezi sariak. % 63,8k, aldiz, oinarrizko horiek bermatuak zituztela adierazi dute.

Eskubide horren urratzea jasan dutela azaldu duten pertsonak larritzat dute urratze hori eta oso maiz edo ia beti gertatzen zela esan dute.

Kezkatzekoa da, era berean, **dohaineko hezkuntza unibertsalerako eskubidearen** urratze bizi izan

dutela adierazi duten pertsonen kopurua, inkestaturiko pertsonen % 32,7 hain zuzen ere. Dohaineko hezkuntzarako aukerarik gabe gertaturiko pertsonen iritziz egoera haren larritasun maila handi xamarraren zen, eta egoera hura denboran luzatu zela argudiatu zuten haien % 60,3k. Azterketan gurutzatu ohi diren aldagai guztiak kontuan harturik ere (adina, sexua, migrazio mota –nahitakoa edo beharturikoa– edota ingurua), ez zen honetan alde esanguratsurik sumatzen. Nolanahi ere, inkestaturiko pertsonen % 61,7k adierazi zuten eskubide hori gauzatu zutela.

- Esanguratsua da, halaber, inkestaturiko pertsonen % 13,7k **oinarrizko bizi maila duina** bermaturik, hau da, elikadura, bizilekua eta jantzia ziurtaturik, ez zutela adierazi izana. Aldiz, bizi maila hori zutela adierazi dute % 86,3k.

Kolonbian lanik ez zuten pertsonen kasuan, handiagoa da bizitza duinerako eskubidearen urratze maila (% 24). Ongizatearen eta lanaren arteko lotura erakusten duen datu honek agerian uzten ditu,aldi berean, Estatuak oinarrizko eskubide batzuen bermatzaile gisa dituen eskasiak.


Eskubide honen urratzea larritasun handiz bizi dute inkestatuak, 7,14 puntu batez beste 0tik 10erako eskalan. Gehienek adierazi dute, gainera, maiz xamar (% 52,7k) edo ia beti (% 43,6k) gertatzen dela,

eta kasu guztietan edo ertaina da egoera honen iraupen epea (% 56,4k dioten bezala), edo luze irauten du (% 43,6).

- Inkestan aintzat harturiko pertsoneri galdetu ere egin zitzaizen irten aurretik beren lurraldean **azpiegitura edo garapenerako proiektu handitan** ari ote ziren. Baietz erantzuten zuten % 70,1ek.

Gehienek (% 67,3k) uste dute proiektu handi haiek euren egunoroko bizitzan eduki zuten eragina positiboa izan zela. % 27k adierazi dute inolako eraginik ez zutela eduki, eta % 3,6k uste dute inpaktua negatiboa izan zela.

9. grafikoa: Proiektuen edo azpiegituren inpaktua egunoroko bizimoduan



Eragina eduki ote zuten proiektu edo azpiegitura haiek zure egunoroko bizimoduan?

- Bai, eragin negatiboa eduki zuten
- Bai, eragin positiboa eduki zuten
- Ez, ez zuten eraginik eduki
- Ez daki / Ez du erantzun

Iturria: Geuk egina

- Jakin nahi izan genuen beren lurraldean **ingurumen krisien ondoriozko egoerak** bizi izan ote zituzten, eta zortzi egoera ageri zituen zerrenda bat iradoki genien, gehienez haietako bi hauta zitzaten.
- Inkestaturiko pertsonen erdiek (% 55,4k) argudiatu zuten zerrendan adierazitako egoera bakar bat ere ez zutela bizi izan. **Lehenengo aipamenari** dagokionez, kutsadura da aukera aipatuena (% 29,1), eta monolaborantzaren praktika (% 6,5), fumigatzeak (% 6,2) eta baso-hustutzeak (% 6,2) datoz ondotik.


Bigarren aipamenaren kasuan, fumigatzeak ageri dira inkestaturiko pertsonek eginiko lehen aukera gisa (% 7), eta monolaborantzaren praktika (% 5,7), eta baso-husteak (% 5,5) datoz ondotik.

Bi aipamenak batzen baditugu, argi eta garbi ikus dezakegu kutsadura dela ingurumen krisien ondorioz nabarienez azaltzen den egoera, inkestaturiko pertsonen bizilekuaren inguruetan (% 13,6).

- % 64,6k diote ez zela inolako **natura hondamen-dirik** gertatu, eta kontrakoa diote % 35,4k. Multzo honetan, gehienek adierazi zuten hondamendi hark ez zela ohiko bizimodurako bidea oztopatu (% 62,7k), eta arazo larriak ekarri zituela esan zu-

ten % 37,3k, hau da, inkestaturiko pertsona guztien % 13,2k.

10. grafikoa: Inguruko ingurumen krisien ondoriozko egoerak



Iturria: Geuk egina

3.- SEXU ESKUBIDEAK ETA UGALKETARAKO ESKUBIDEAK

5. Taula: Pertsonen eskubideak

Adierazpena	Familia	Eskubidea	
	SEXU ETA UGALKETARAKO ESKUBIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> Ugalketaren gainean libreki erabakitzea (erlijioaren edo ohituren araberrako interpretazio murriztailerik gabe) Informaziorako aukera 	<ul style="list-style-type: none"> Ugalketarako osasunaren babesa (amatasuna eta abortua segurtatuak) Sexu orientabidea Genero identitatea

- **Ugalketarako osasuna, hau da, amatasuna eta abortua**, Kolonbian aintzat harturiko terminoen arabera **segurtaturik** ote zeukaten galdetu zaie inkestan aintzat harturiko emakumeei. Ezetz adierazi dute % 17,8k. Ugalketarako osasunaren babeserako aukera zutela esan dute % 81,4k.
- Galdetu ere egin zaie emakumeei Kolonbian bizi zirelarik emakume izateagatik diskriminaziorik jasan behar izan ote zuten. Hamar emakume kolonbiarretatik bederatzik (% 85,6k) inolako diskriminazio motarik ez dutela jasan adierazi dute, **eta % 14,4k emakume izateagatik diskriminatuak izan zirela azaldu dute**.
- Inkestaturiko pertsona guztiei galdetu zaie **kontra-epiziorako neurrietarako aukerari eta haien gaineko informazioari** buruz. Gehienek adierazi dute haietarako aukera bazutela (% 91,5ek), eta % 7,7k azaldu dute eskubide horren urratzea bizi izan zutela. Beren burua bizilekuz aldatzera beharturik ikusi zuten pertsona elkarrizketatuen artean maizago ageri da **kontra-epiziorako neurrietarako eta haien gaineko informaziorako eskubidearen urratzea** (% 33,3), % 6,2koa da proportzio hori Kolonia beren borondatez utzi zuten pertsona elkarrizketatuen artean.

Aurreko galderetan bezala, gurutzatu beharreko aldagaien analisiak argi erakutsi du alde esanguratsua daudela Kolonbiatik beharturik atera zirela esan duten pertsonen eta lurraldea beren borondatez utzi zutela diotenen artean. Kolonbian diskriminazio motaren bat jasan zutela adierazi duten emakumeen proportzioa handiagoa da lehen multzoko pertsonen artean (% 50), bigarren multzokoen artean baino (% 11,9).

Inkestaturiko hamar pertsonetatik bik adierazi digute ezin zutela beren sexu orientabidea libreki adierazi eta haren arabera bizitzeko eskubidea gauzatu (% 77,8k, aldiz, beren **sexu orientabidea hautatu eta gauzatzeko eskubidea** bazutela esan dute). Urratze egoera hau bizi izan den intentsitatea ertain/altua da. Kolonia beharturik utzi zutela adierazi dutenen artean ageri dira, berriro ere, eskubide hori urratu zaiela adierazi duten pertsona gehiago (% 33,3), lurraldea beren borondatez utzi zutela adierazi dutenen artean baino (% 6,2).

C.- ESTATUAREN PAPERA ETA MIGRAZIO PROIEKTUA

Estatuak eskubideen babesari eta bermeari begira jokatu beharreko paperaz

Inkestaturiko pertsonen % 12k adierazi dute Kolonbiako Estatuak berak bururatu zituela urratze horiek eta % 33,2k, urratzeen egiletzat jotzen ez badu ere, Estatuak urratze haiek baimentzen zituela adierazi dute. Hau da, pertsona horien % 45,2ren ustez, giza eskubideak urratzen zituzten praktiken erantzule zen, eginez edo egin ezaz, Kolonbiako Estatuak. % 31,7k uste dute Estatuak ez zuela herria babesteko gaitasun handiegirik, eta % 16 baizik ez dira Estatuak Kolonbiako biztanleen artean giza eskubideen urratzerik toleratzen ez zuela esaten dutenak.

Multzo osoan jasoriko erantzun hauen banaketan ez da, aztertu eta gurutatu ditugun aldagaien arabera (sexua, adina, lanbidea, jatorrizko bizilekuaren izaera, itzulera edota beharturiko lekualdatze subjektiboa), inkestaturikoen portaeran halako bereizgarririk edo alde esanguratsurik sumatu.

Herrira bisitan joateko edo betikoz itzultzeko aukerei dagokionez

Gehienak, hamar lagunetatik 8, jatorriko herrira, Kolonbiara, itzuli dira bisitan Euskadira iritsi ondoren; horrek

esan nahi du, itxuraz, haien irteera “natural” xamarra izan zela, itzultzeko arazo handiegirik izan ez duten aldetik.

Berriro itzuli ez direnen %13,6k arazoak argudiatu dituzte jatorriko lurraldean, itzultzeko beldurra alegia. Nolanahi ere, % 27,2 baizik ez dira itzuli ez direnen artean erabaki horretarako oinarritzko eskubideen urratzeekin loturiko arrazoiak aurkeztu dituztenak. 22 pertsona dira guztira, hau da, azterturiko lagin osoaren % 5,5.

Migrazio proiektuari dagokionez

Pertsona gehienek esan digute etorkizunari begira Euskadin gelditzeko asmoa dutela: hala azaldu digute 3 pertsonetako 2k, erabaki hori finko hartua dutelako batzuek (% 55,6k diote gelditu nahi dutela) edo oso gertagarria ikusten dutelako beste batzuek (% 20,2 ez dago horren seguru, baina Euskadin geldituko dira seguruenik).

Garrantzitsua da, halaber, Kolonbiara itzultzea aurreikusi duten pertsonen kopurua: % 23,9 daude asmo horretan, oso asmo finkoa batzuegan (% 18,2k esan digute itzuli nahi dutela) eta zalantzazkoa beste batzuegan (% 5,7k ez dakite oraindik seguru, baina euren ustez itzuli egingo dira azkenean) •

(Amaierako ondorioak)

Kolonbiako populazioaren giza eskubideen urratzea jatorriko lurraldean

Inkestaturiko pertsonen % 51,6k adierazi dute beren eskubideren bat edo batzuk urratuak izan zirela jatorriko lurraldean. Urratze horien maila ertaina izan zen oro har, baina oso maiz eta denbora luzean gertatu ziren. Eskubide-familia urratuenak dira sozialak (% 24,2) eta haien ondotik datoz ingurumen arlokoak (% 21,2), zibilak (% 14,2), ekonomikoak (% 13,5), ugalketarakoak eta sexualak (% 13,5) eta politikoak (% 2,2).

Inkestaturiko pertsonen erdiek ia-ia egin dute Kolonbiako Estatua giza eskubideen urratzeen erantzule (% 45,2k) eta erantzukizun horretatik kanpo utzi dute beste erdiek (% 47,7k).

6. Taula: Eskubideen urratzea jatorriko lurraldean

Eskubideen urratzea	Erantzunak	
	kopurua	%
Eskubide zibilen urratzea	57	14,2
Eskubide politikoaren urratzea	9	2,2
Eskubide ekonomikoaren urratzea	54	13,5
Eskubide sozialen urratzea	97	24,2
Ingurumen arloko eskubideen urratzea	85	21,2
Sexu eta ugalketarako eskubideen urratzea	54	13,5
Guztira	207	51,6

Iturria: Geuk egina


Eskubideen urratzea generoaren ikuspegitik lasaiago aztertzerakoan, argi eta garbi ikusi dugu genero aldagaiaren bitartez eginiko gurutzatzeetan sumaturiko aldeak sexu eta ugalketarako eskubideen arloan baizik ez direla esanguratsuak izan. Sexu eskubideen eta ugalketarako eskubideen eremuan, urratzeen pertzepzio txikiagoa sumatu da gizonen artean (% 9,15) emakumeen artean baino (% 15,5). Gainerako kasuetan ez da alde esanguratsurik hauteman, ez eta beharturiko lekualdatzeei, ageriko nahiz egotzirikoei, buruz ari ginelarik ere. Baina guztiz aipagarria da emakumeen % 14,4k emakume izate hutsagatik diskriminazioa jasan dutela, eta hamar lagunetatik bik beren sexu orientabidea libreki adierazteko eta gauzatzeko eskubidea urratu zitzaizela adierazi izana.

AGERIKO lekualdatze behartua

Haien funtsezko eskubide guztiak, politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak, ugalketaren arloak eta sexualak, errepasatu eta esparru bakoitzean gertatu ziren urratzei buruz hitz egin ondoren, beraien jatorriko migrazioari, Kolonbiako irteeraren atzean gelditu den migrazioari, buruz galdetu genien inkestaturiko pertsonen, migrazio hura euren ustez nahitakoa edo beharturikoa izan ote zen jakiteko. Honako hau izan zen, hitzez hitz, galdera: *“Zure Kolonbiako irteera azaldu beharko bazenu, zer esango zenuke, nahitako migrazioa izan zela ala, bestela, beharturiko migrazioa izan zela?”*.

Horrenbestez, ikuspegi subjektibo batetik, lehen pertsonan, jaso dugu haien lekualdatzearen izaera, nahitakoa edo beharturikoa.

11. grafikoa: Migrazioaren izaeraren pertzepzio subjektiboa



Kolonbia utzi eta egun Euskadin bizi direnen artean, inkestatu ditugun pertsona gehien-gehienek uste dute beren migrazioa nahita harturiko erabaki baten ondorioa izan zela: hala adierazi dute haien % 93k. **Haie-tako % 6k baizik ez dute uste beren migrazioa edo lekualdatzea euren nahiaren aurkako arrazoiek beharturiko zerbait**² izan zela, eta arrazoi horien artean topa genitzake arestian aipatu ditugun eskubide urratzeak, pertsona horiek bizilekuz aldatzera behartuko zutenak.

EGOTZIRIKO lekualdatze behartua

Dagoeneko azaldu dugun bezala, beharturiko lekualdatzea eskubide zibil eta politikoen urratzeen ez besteren emaitzat hartzen zuen ikuspegi 'klasikoa' gainditzen duten faktoreak utzi ditu agerian ikerketa lan honek.

Halatan, pertsona kolonbiarrek lurraldea utzi izana giza eskubideen ikuspegi integral batetik –hau da, arlo zibil, politika, gizarte, ekonomia, ingurumen, sexu eta ugalketarako eskubideen urratzeak, urratze horien larritasuna, intentsitatea eta maiztasuna, eta lekualdatzeetan izan duten eragina kontuan harturik– neurtuz gero, beharturiko lekualdatze gehiago geratzen dira agerian.

- *EGOTZIRIKO lekualdatze behartua oro har hartua:* Oro har bideraturiko estrategia honi esker, estimazioen arabera esan genezake, **protagonistek hala ez adierazi arren, beharturiko lekualdatzea jasan dutela inkestaturiko pertsona kolonbiarren % 17,2k**. Ikusi ere egin da eskubide sozialen urratzeak eskubide zibilen urratzeak adinako eragina duela lekualdatzeen arloan.

2. 10 pertsonak uste dute beren lekualdatzea behartua izan zela eta ikerketa taldeak ere izaera hori egotzi die, baina beste 14 pertsonak ere uste dute euren lekualdatzea behartua izan zela eta, erabilitako irizpideen arabera, ikerketa taldeak ez die horrelakorik egokitu. Arrazoiak izan liteke, besteak beste, inkestaturiko pertsonen jasaniko eskubide urratzeen intentsitateari buruzko galderei modu egokienean ez erantzun izana, eta horrek du eragina egokituko zaien migrazio mota zehazterakoan.

7. Taula: Egotziriko lekualdatze behartua: estimazio orokorra.

Egotziriko lekualdatze behartua: estimazio orokorra.	Erantzunak	
	kopurua	%
Eskubide zibilen urratzea	4	1,0
Eskubide politikoen urratzea	35	8,7
Eskubide ekonomikoen urratzea	34	8,5
Eskubide sozialen urratzea	23	5,7
Ingurumen arloko eskubideen urratzea	0	0,0
Sexu eta ugalketarako eskubideen urratzea	0	0,0
Guztira	69	17,2

Iturria: Geuk egina

8. Taula: Egotziriko lekualdatze behartua: estimazio librea.

Egotziriko lekualdatze behartua: estimazio librea.	Erantzunak	
	kopurua	%
VEskubide zibilen urratzea	18	4,5
Eskubide politikoen urratzea	9	2,2
Eskubide ekonomikoen urratzea	52	13,0
Eskubide sozialen urratzea	23	5,7
Ingurumen arloko eskubideen urratzea	3	0,7
Sexu eta ugalketarako eskubideen urratzea	17	4,2
Guztira	92	22,9

Iturria: Geuk egina

- Egotziriko lekualdatze behartua libreki estimatua: Eskubideen arteko bereizkuntza bideratzen duen estimazio estrategia librearen arabera, egotziriko lekualdatze behartuaren estimazioa handiagoa da, **inkestaturiko populazioaren % 22,9ra** iristen den aldetik.

Analisi honen emaitzen arabera, eskubide zibilen urratzea izango litzateke behartze horren arrazoi nagusia, eta eskubide ekonomiko eta sozialen urratzeak izango lirateke ondoren eragin handiena luketenak.

Halatan, Euskadin bizi den komunitate kolonbiarraren % 20 eta % 25 bitarteko populazioak lekualdatze behartua jasan zutela esan genezake. Ageriko lekualdatze behartua izan zen inkestaturiko pertsonen % 6rena, eta egotziriko lekualdatze behartua % 15 eta % 20 bitartekoena, jatorriko lurraldean bizi zituzten giza eskubide urratzeak aztertu eta gero ondorioztatu bezala.

Ikusi ere egin dugu eskubide zibilen urratzeen aurrean kontzienteago agertu diren pertsonak izan direla, orobat, beren lekualdatzea behartua izan zela argien azaldu dutenak. Nagusi ageri zaigu, horrenbestez, lekualdatze behartua eskubide zibil eta politikoen urratzeekin lotzen duen ikuspegi klasikoa, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako eskubideen urratzeek maila horretan eduki dezaketzen garrantziaren gainetik. de los derechos económicos, sociales y ambientales •

Loturiko agerkariak:

- *Migrazio kolonbiarra Euskadin: Nahitakoa ala behartua?* Txosten osoa: www.cear-euskadi.org
 - AIERDI, Xabier eta CELIS, Raquel (CEAR-Euskadi). (Bilbo, 2015): *Migrazio edo lekualdatze behartua? Biztanle mugimenduen arrazoiak eztabaidagai*. Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideei buruzko Koadernoak.
 - PULIDO, Alejo. *Magdalena ibaiaren murmurioak. Megaproiektuek eragiten dituzten lekualdatze behartuak*. CEAR-Euskadi. (Bilbo, 2014). www.cear-euskadi.org helbidean eskuragarri.
-